

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

420/2014 Foru Agindua, irailaren 29koa, behin betiko onartzen duena Etxabarri Ibiñako (Zigoitia) lurzoru urbanizaezinean zentro hipiko bat instalatzeko plan bereziaren espedientea

I. AURREKARIAK

Lehenengoa. Zigoitiko Udaleko alkatearen 2013ko otsailaren 13ko ebazpen baten bidez erabaki zen hasierako onarpena ematea Etxabarri Ibiñako lurzoru urbanizaezineko 6. poligonoko 1338 zenbakiko lurzatian zentro hipiko bat instalatzeko plan bereziaren espedienteari. Horrez gainera espedientea jendaurrean jartzea ere erabaki zen, eta horretarako iragarki egokiak jarri ziren ALHAOn (26. zk., 2014ko martxoaren 5ekoa), El Correo egunkarian (egun berean) eta Udalaren iragarki taulan, eta Etxabarri Ibiñako Administrazio Batzarrari jakinarazi zitzaion.

Bigarrena. Espedientea jendaurrean egon zen bitartean alegazio bat aurkeztu zen Etxabarri Ibiñako hainbat herritarrek sinatuta, eta Udaleko arkitekto aholkulariak horren gaineko txostena egin zuen. Udalak, 2014ko maiatzaren 22ko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari eta agindu zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordera bidaltzeko, txostena idatz zezan, bai eta Arabako Foru Aldundira ere, behin betiko onar zezan.

Hirugarrena. 2014ko urtarrilaren 22an Udalak txostena eskatu zion AFAko Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuari plan bereziari ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura aplikatu behar ote zitzaion argitzeko.

Zerbitzuak 2014ko otsailaren 3an eman zuen txostena; bertan adierazi zuen txostena eragin duen plan bereziaren kasua "ez dela ebaluazio estrategikoaren prozedura aplikatzea dakartenetakoa, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duenak, xedatutakoaren arabera. Beraz, ez zaio aplikatu behar prozedura hori".

Laugarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak, Arabako Hirigintza Planeamenduko Atalak uztailaren 23an egindako 5/2014 bilkuran, Etxabarri Ibiñako lurzoru urbanizaezinari buruzko plan bereziaren espedientearen aldeko txostena eman zuen.

Bosgarrena. 2014ko abuztuaren 8an Zigoitiko Udalaren idazkia jaso zen Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean; haren bidez Zigoitiko Udalak Etxabarri Ibiñako lurzoru urbanizaezinean zentro hipiko bat instalatzeko plan bereziaren espedientea helarazi zio Aldundiari, behin betiko onartzeko.

II. OINARRIAK

Lehenengoa. Plan bereziaren xedea Etxabarri Ibiñako lurzoru urbanizaezineko 6. poligonoko 1338 zenbakiko lurzatian zentro hipiko bat instalatzea da. Izapideak ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuak, ekainaren 30eko 2/2006 Legea, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa, garatzen duten presazko neurriak ezartzen dituenak, 4.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egin dira.

Bigarrena. 105/2008 Dekretuko 4.2 artikuluan hauxe ezartzen da:

"Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan adierazitako jardunak berariaz eta soilik honako honetara bideratuko dira: hirigintza-plangintzarekin bat etorritik, landa-inguruaren ordenamendurako eta garapenerako lagungarriak izateagatik edo aplika daitekeen sektore-legediak edo lurralde-plangintzak interes publikokotzat deklaratu

dituelako, landa inguruan kokatu behar diren zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak ezartzera. Adierazitako zuzkiduren, ekipamenduen eta jardueren ezarpen jakin bakoitzak dagokion Foru Aldundiaren ebazpen bidez interes publikokotzat deklaratu izan beharko du, jendaurrean agertzeko hogeitasei eguneko izapidearen ondoren.”

Zentro hipikoa ezarri nahi den lurzuria lurzoru urbanizaezinean dago, nekazaritza babesteko zona batean (Z5), eta bertan ondoko erabilerak daude baimenduta, besteak beste (araudiko 199.2 artikulua):

“Herri onurakoak eta gizarte interesekoak diren eraikuntzak, instalazioak eta azpiegiturak, honako baldintza hauek betetzen dituztenak:

– Landatar ingurunean kokatu behar dira. Izan ere, eraikuntza horietan jarduera bereziak egiten direnez, zientzia, topografia, geografia, irakaskuntza edo horrelako beste arrazoiengatik edo lehen sektoreko baliabideak ustiatzeari zerbitzua eskaintzeagatik hautatutako lurzuri lotetsirik egon behar dute nahitaez.

– Ezin dira egon HPAko 76.3.a) artikuluan jasotzen diren kasuetan.

– Ezin dute sortu hondakinik; hondakinik sortuz gero, artoaren organoaren baimena aurkeztu behar dute edo hondakinak estolderiaren sare orokorrei zuzenean konektatuta eduki behar dituzte.

– Ez dute ez higidurarik ez lurren kalitate galerarik eragin behar.

– Ez dira akuiferoak babestearekin bateraezinak izan behar.”

Onarturik zaldiketarako kirol zentro bat, beraren jarduera dela eta, ezinbestean landa ingurunean kokatu behar dela, gure kasuan argitu beharreko auzia hau da: instalazio horrek interes publikorik duen. Interes publikoko izatea beharrezkoa da baimena lortzeko, halaxe xedatzen baitu Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legeak 28.5 a) artikuluan.

Hizpide dugun instalazioa kirol batean aritzeko da; gainera ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskadiko kirolarenak, 2.1 artikuluan hau da ezartzen du: “Kirola interes publikoko gizarte jarduera da, pertsonak bete-betean prestatzeko eta garatzeko, bizi-kalitatea hobetzeko eta norbanakoak eta gizarte ondo izateko lagungarria”. Beraz, begi bistakoa da badagoela Legeak instalazio baimentzeko eskatzen duen interes publikoa.

Hirugarrena. Finka Etxabarri Ibiñako lurzoru urbanizaezinean dago; 30.867,25 m²-ko azalera dauka eta hau da beraren kalifikazioa: lurzoru urbanizaezina, nekazaritza babesteko zona - Z5.

Irailaren 22ko 515/2009 Dekretuan abeltzaintzako ustategien eta hiri lurzoruaren artean egon behar den gutxieneko distantziak ezartzen dena betetzen da. Kasu honetan, instalazioan ekidoak egongo direnez eta herrigunearen (Etxabarri Ibiña) ekoizpen arlo nagusia nekazaritza-abeltzaintza denez (515/2009 Dekretua, III. eranskina), distantzia 75 metrokoa izan behar da, kontuan edukita instalazio berriak ez duela kalterik sortuko (usinak, eragozpenak, intsektuak, etab.) zona horretan hirigintzako araudiak baimentzen dituen abeltzaintzako beste jarduera batzuen aldean. Ildo honetatik, agiri teknikoan bertan adierazten da box eraikina (hiri lurzorutik hurbilen dagoena) 75 metro baino urrunago dagoela.

Jardueraren funtzionamendua dela eta, proposamenean zentro hipikoaren aldaketa justifikatzeko azaltzen da ez dela egokia gaur egun dagoen tokian egitea, etxebizitzetatik hurbil dagoelako, ibilgailuentzako aparkaleku gutxi daudelako eta ezinezkoa delako instalazioak zabaltzea ez eraberritzea.

Laugarrena. Lurzoru urbanizaezineko plan bereziaren edukia:

1. Zentro hipikoa eraikitzeko proposamenaren arabera instalazioak lurzuriaren iparrean egingo dira, tokirik egokiena baita, bai sarbideengatik, bai ikusgarritasunagatik, bai azpiegituren baliagarritasunagatik; hain zuzen ere, ondoko elementuak eraikitzea proposatzen da

(ezaugarriak eta dimentsioak zehaztuta): zaldiak edukitzeko eraikina (35 box); lokal soziala, aldagelak, komunak eta bulegoak egongo diren eraikina; zaldiak ibiltzeko noria, esekia eta estalia; simaurtegi estalia; zaldiketako pista, estali gabea.

2. Plan berezian azaltzen da nolakoak izango diren sarbideak, edateko uraren hornidura, energia elektrikoaren hornidura, telefoniaren hornidura, eta euri uren eta hondakin uren saneamendua. Horrez gainera zentroak ingurumenean edukiko duen eragina, bai eraikuntzan edukiko duena, bai funtzionamendua dagoenean edukiko duena, justifikatzen du eta aplikatuko diren babes neurriak, zuzenketa neurriak eta konpentsazio neurriak azaltzen ditu.

3. Planean hainbat parametro ezartzen dira urbanizazioa eta eraikuntza arautzeko, kontuan harturik zer ezartzen den udalerriko arau subsidiarioetan lurzoru urbanizaezineko nekazaritza besteko Z5 zonan herritarren onurarako eta gizarte intereseko publikoko instalazioak eta azpiegiturak eraikitzeaz. Hauexek dira eraikuntzako parametro nagusiak: eraikigarritasuna: 0,10 m²/m²s; gehieneko okupazioa: euneko 10; solairuak, gehienez: 2; gehieneko garaiera erlaitzeraino eta teilatu hegaletaraino: 7 metro.

Bosgarrena. Agiri teknikoa aztertu da eta egiaztatu da konpondu beharreko gauzak daudela; ondoko idatz zatietan xehatuko dira:

1. Instalazioa herritarren onurakotzat jotzeko, 199.2 artikuluan 5. zonarako ezarritako baldintzak betetzen direla frogatu behar da:

- Proposameneko guneren batean isurketarik egongo bada eta ez badago aurreikusita udal sarearekin konektatzea, arroaren organoaren baimena beharko da.

- Jarduera bateragarria izan behar da akuiferoen babesarekin.

2. 14. idatz zatiaren edukia ("Gauzatzea antolatu eta kudeatzeko gidalerroen azterlana") ez dator bat izenburuarekin; aitzitik, "Plan berezia garatzeko hirigintzako eta eraikuntzako arauak" idatz zatiari dagokio. Gainera testua generikoa da, hots, ez dago egokituta agiriaren inguruabar berezietara; adibidez: arau subsidiarioetan ezarritakoa aipatzen da, nahiz eta xedea plan berezia arautzea izan, eta definitzen diren kontzeptu batzuk ez dira agertzen hirigintzako eta eraikuntzako parametroetan (eraikinen arteko tartea, sotoko eta erdisotoko solairuak...).

3. HLLko 68. artikuluan eta hurrengoetan aipatzen diren planetako agiriak direla eta, ondoko hauek ez dira aurkeztu:

- Informazio planoak: azpiegiturak, lurzoruaren sailkapena, arau subsidiarioetan ezarritako lurzoru urbanizaezineko zonak.

- Antolamendu planoak: kalifikazio xehatua, lurzoruaren kudeaketa, eta lerrokadurak eta sestrak.

- Gauzatzea antolatu eta kudeatzeko gidalerroen azterlana, epigrafe horretako testua ez baitator bat esandakoarekin.

4. Jarduketa eremua antolatzeko proposamenaren deskripzioan ez dira azaldu aurkeztutako planoetako aparkalekuen ezaugarriak, ez neurriak, eta zenbat diren ere ez da argitu.

5. Hirigintzako araudian baimendutako erabilerak zehaztu behar dira, eta lurzatiaren, eraikinen eta sarbideen baldintzak eta baldintza estetikoak eta higienikoak plan berezi honetako baldintzetara moldatu behar dira.

6. Agiri teknikoaren euskarri informatikoari dagokionez, dokumentazioa, txosten honetan azaldu den bezala zuzenduta, *.pdf formatuko fitxategietan eta fitxategi editagarrietan aurkeztu behar da: planoak *.dwg formatuko fitxategietan (arkatzen fitxategia erantsi behar da, *.ctb formatukoa) edo *.shape fitxategietan, eta testua *.doc fitxategietan.

Seigarrena. Espedientea jendaurrean egon den aldian aurkeztutako alegazioa dela eta, hura baiestearen kontra ebatzi behar da, Zigoitiko Udalaren behin-behineko onarpenaren oinarrietan adierazitakoarekin bat etorritz.

Horregatik, dauzkadan ahalmenak erabiliz, hauxe

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa. Behin betiko onartzea Etxabarri Ibiñako (Zigoitia) lurzoru urbanizaezineko 6. poligonoko 1338 zenbakiko lurzatian zentro hipiko bat instalatzeko plan bereziaren espedientea, ondoko aldaketa hauek eginez gero:

1. Instalazioa herritarren onurakotzat jotzeko, 199.2 artikuluan 5. zonarako ezarritako baldintzak betetzen direla frogatu behar da:

- Proposameneko guneren batean isurketarik egongo bada eta ez badago aurreikusita udal sarearekin konektatzea, arroaren organoaren baimena beharko da.

- Jarduera bateragarria izan behar da akuiferoen babesarekin.

2. HLLko 68. eta 69.3 artikuluetan azaltzen denaren arabera plan berezi honen edukia formalizatzeko behar diren agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Informazio planoak: azpiegiturak, lurzoruaren sailkapena, arau subsidiarioetan ezarritako lurzoru urbanizaezineko zonak.

- Antolamendu planoak: kalifikazio xehatua, lurzoruaren kudeaketa, eta lerrokadurak eta sestrak.

- Gauzatzea antolatu eta kudeatzeko gidalerroen azterlana, epigrafe horretako testua ez baitagokio izenburuari, baizik eta hirigintzako araudiari.

3. Aurkeztutako planoetako aparkalekuen ezaugarriak, neurriak, kopurua eta neurriak argitzen dituen agiria txertatu behar zaio memoriari.

4. Hirigintzako araudian baimendutako erabilerak zehaztu behar dira, eta lurzatien, erai-kinen eta sarbideen baldintzak eta baldintza estetikoak eta higienikoak plan berezi honetako baldintzetara moldatu behar dira.

5. Agiri teknikoaren euskarri informatikoari dagokionez, dokumentazioa, txosten honetan azaldu den bezala zuzenduta, *.pdf formatuko fitxategietan eta fitxategi editagarrietan aurkeztu behar da: planoak *.dwg formatuko fitxategietan (arkatzen fitxategia erantsi behar da, *.ctb formatukoa) edo *.shape fitxategietan, eta testua *.doc fitxategietan.

Bigarrena. Aipatutako aldaketak ez dira funtsezkoak. Beraz, zuzendutakoan espedientea Foru Aldundiari igorriko zaio, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezzen eta argitara dadin.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratuko da.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du; beraren kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, eta horretarako bi hileko epealdia egongo da jakinarazpenaren edo argitalpenaren egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko irailaren 29a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
MARTA RUIZ CERRILLO